



19.^{æk}korrika
EUSKAHALDUN!

Urepeletik Bilbora • 2015eko martxoaren 19tik 29ra

UNITATE
DIDAKTIKOA
8-10 URTE

SARRERA OROKORRA

HELBURUA:

Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea. Helburu berarekin lanean diharduen AEK-k antolatutako KORRIKA ekimenaren zergatiak eta beharraz ohartzea.

IRAUPENA:

KORRIKA 19 martxoaren 19an hasiko da Urepelen, eta martxoaren 29an amaituko da Bilbon.

KORRIKAren unitate didaktikoak bi asteko iraupena izango du (11 egun eta aurre-prestaketa).

Betiere, irakasleen esku geratuko da unitatea bete-betean jarraitzea edo egun gutxiagotan burutzea.

PROZEDURA:

Bi asteko proposamena da hau, baina ez da ahaztu behar malgutasun osoa dagoela unitatea erabiltzeko garaian, jarduerak solteak baitira. Horrela, beraz, norberaren gustura antola daiteke lanketa.

Jarduera bakoitza garatzeko zenbat egun edo saio erabili jakiteko gomendioa ere bertan duzue.

Proposatzen diren jarduerak ez dira soilik Euskara arloan egiteko. Euskararen normalizazioa edozein jakintza-arlotako irakasleen ardura ere badenez, ikastetxeko irakasle eta gainerako hezitzaileen esku-hartzea oso garrantzizkoa izango da helburuak lortzeko garaian.

EGITURA:

Unitatea adinaren arabera antolatuta dago. Adin-tarte bakoitzari egokia zaion lanketa proposatzen da.

- Haur Hezkuntza (Hegoaldean) eta Ama Eskolan (Iparraldean) lantzekoa.
- 6-8 urtekoekin lantzekoa. (LH 1.zikloa)
- 8-10 urtekoekin lantzekoa. (LH 2.zikloa).
- 10-12 urtekoekin lantzekoa. (LH 3.zikloa).
- 12-18 urtekoekin lantzekoa. (DBH eta DBHO)

KIDETZE-PLANA:

Plangintza honek ikasle helduak eta gazteagoak kidezeko proposamena egiten digu. Ikasle helduenak gaztetxoengana joango dira ipuina lantzeraz.

Ipuina kontatzeko garaian, hain zuzen, ikasle helduagoak ipuin-kontalari eta antzezle bihurtuko ditugu. Kidezearen helburuak honako hauek dira:

- Elkarrekintzaren bitartez ikasle txiki eta nagusien euskara-erabileran eragitea.
- Ikastetxearen hizkuntz normalizazioan ikasle nagusiak subjektu aktiboak izatea eta ez hartzaile pasibo huts, horretarako ikasle helduenen protagonismoa bultzatzen da.
- Ikasle nagusiek ardurak eta konpromisoak har ditzaten bultzatzea.
- Ekintza honen bidez motibazioa indartzea, batez ere, ikasle nagusiekin.
- Ahozkotasunaren lanketan jardutea. Kontuan hartu unitatea adinen arabera banatu dugula, baina asmoa ez dela, inondik inora, bakoitza bere jardunean ibiltzea besteenaz ohartu barik. Zilegi da ekintza elkarrekin egitea; kidezea da horren adibide bat.

Amaiera-ekitaldian zein sarrera-irteeretan antola daitezkeen ekintza osagarri guztiak, beraz, ikastetxe osoari zuzendutakoak izan daitezten ahalegintzea komeni da.

- KORRIKA 19ren leloa "Euskahaldun" denez, bakoitzaren ahalmenak uztartzea ere atera da Unitateko xede nagusizat, kidezearekiko lotura zuzenak edukiz.

EGILEA

Xan Aire

KOORDINAZIOA

Kristina Boan
(Euskal Herriko Ikastolak)

ESKER BEREZIAK

Kanaldude, Kike Amonarriz, Peio Irigoieni.

DISEINUA



IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

ZER DA IRAKASLEAK UNITATE DIDAKTIKOAN AURKI DEZAKEENA?

SARRERA-GIDA

Atal honetan lanerako proposatutako material guztiaren aurkezpena egiten zaio irakasleari: lanaren helburu orokorrak, jarduerak, iraupena, lanerako prozedurak eta antolaketa-egitura.

ETAPAREN BEREZITASUNEN ARABERAKO ZIKLOKAKO PROPOSAMENA

Etapako berezitasunak kontuan hartuta, ziklokako planteamendua proposatzen zaio irakasleari; horretarako, adin-tarteari dagozkion jarduera esanguratsuenak hautatu dira. Irakasleek egunerokoan lantzen dutenaren osagarri izan nahi du unitate didaktikoak.

Ziklo bakoitzean egitura berbera jarraitzen da: lehenik, lan-eskema aurkezten da, inplikatzeko duen jarduerarekin lotura eginez (taula formatuan). Eskemak ziklo horretarako proposatutako lanaren berri ematen du: jarduerak eta horien helburu zehatzak, jardueren deskribapena eta

denboralizazioa. Bigarrenik, proposatutako jarduerak agertzen dira. Jarduera horietan ez da soilik tutorea edota hizkuntz irakaslea inplikatzeko bilatzen, beste diziplina-arloak lantzen dituztenak ere parte-hartzaile bihurtu nahi dira: musika-irakaslea, plastika arloko irakaslea...

HAUR HEZKUNTZARI dagokionez, ipuina bilakatzen dugu ardatz. Jarduna emankorra suerta dakigun, ipuina lantzeko baliatzen dugun metodologia izango da gakoa. Ez dauka zentzurik umeak entzule huts izatea; ipuinaren dramatizazioaren bitartez, ipuinaren protagonista bihurtu behar ditugu, ipuina eta horrek helarazi nahi duen mezua bere egin ditzatela; horretarako, gure lana ulermen eta elkarrizketara bideratuko dugu. Ipuinaren istorioak eta ipuinaren pertsonaia nagusia den Peru Pirata pertsonaia, berriz, txikiaren ahalmenaz gogoetaztera eramango gaitu.

Hala ere, ez da hausnarketarik lortuko ikasleek ipuina entzun-ikusi hutsaz; ezinbestekoa da gaia galdera itxien bidez bideratzea, irakaslea

moderatzaile bihurtzea.

Lekukoaren inguruan, lanketa berezia eraman nahi izan da aurtan, batez ere sinbologia lantzeko. Hiru jarduera lotuko ditu, sinpleki bada ere.

Jarduera batzuek, **familia lotzea eta motibatzea** ere nahi dute, KORRIKA eta euskararekiko jarrera baikorrak luzatuz, keinu xumeen bidez.

LEHEN HEZKUNTZARI dagokionez, hiru zikloetako bakoitzerako unitate didaktiko bana proposatzen da. Jarduera gehienak nahiko antzekoak diren arren, badira aldatzen direnak.

- Lehen zikloan (6-8 urte) esaterako, ipuinak oraindik toki garrantzitsua izango du. Hala eta guztiz ere, **euskarari buruzko hausnarketan hasteko garaia** ere egokia iruditu zaigu, molde ludikoan eta parte-hartzailean izanez, noski.

- Bigarren zikloan (8-10 urte), ipuinarekin zertxobait lanean jarraituko dute ikasleek,

baina euskararekiko duten konpromisoan gozatzea ere nahi dugu. Horretarako ere, **AEK-k sortutako Korrika-Jokoa adin horretako ikasleei probaraztea egokia iruditu zaigu**, euskara, euskal kultura eta Euskal Herria molde ludikoan josten baititu.

- Hirugarren zikloan (10-12 urte), **“Euskahaldun” leloa izango da ardatz nagusia**, gogoeta sakona eramanez kontzeptu horren inguruan. Ildo horretan ere dugu AEK-k aurtan sortu dokumentala erabiliko, gaztetxo horiek pertsona ezagunen mezu argiak jaso ditzaten, eta horien konpromisoa ere elikatzeko, argiki utziz ikasle gazteagoentzat, hainbat kontutan erreferente direla (batez ere euskararen erabilpenerako).

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

ZER DA IRAKASLEAK UNITATE DIDAKTIKOAN AURKI DEZAKEENA?

Ziklo horietan guztietan bada errepikatzen den ariketa bat: KORRIKA 19ren ibilbidea.

Jarduera honetan, ibilbidea jarraitzeaz bat, mapa mutua aurkezten da. Aurten, eta eguneko prentsa baliabide ezinhobe delako pentsatzen dugun arren, teknologia berriez baliatzea proposatzen dugu.

Horretarako, AEK koordinakundeak **www.korrika.eus** helbidean erakusgai izango duen GPSa baliatuz, KORRIKA Euskal Herriko bazterretan barrena nondik nora dabilen ikustea proposatzen dugu.

BIGARREN HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ, aurreko edizioetan bezalaxe, oraingoan ere ikasle helduenak ipuin-kontalari lanetan arituko zaizkigu. Horretarako, kidetze-estrategia erabiliko dugu.

Bestalde, KORRIKA 19ak eta "Euskahaldun" leloak ere toki garrantzitsua izango dute, hausnarketarako hari luzea emango baitute. Ibilbidea lantzerakoan, KORRIKA 19ren abiapuntua azpimarratzeko tartea ere eskainia zaio: **Urepele herria**

eta bertako hizkuntza-egoera hobeki ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, azaletik bada ere. Horrez gain, euskaraz gozatzeko xelegehiak biltzen dituen **Ahal... ala Ahal?? jokoa** ere eskainia zaie, elkarrekin ongi pasatzeko.

Bukatzeko, KORRIKA 19an gazteen parte-hartzea sustatzeko, **Selfieak egitera gonbidatuko ditugu**, ondotik beren argazkiak **www.korrika.eus** webgunean zintzilikatzeko.

ETAPA GUZTIETAN ERREPIKATZEN DIREN JARDUERAK

Hauk dira etapa guztietan errepikatzen diren jarduerak:

- Kanta eta mezua. KORRIKA kanpaina kokatzeko eta girotzeko erabiliko dira.

- Ipuina. Ipuina lantzerakoan, hezkuntza-etapa bakoitzak bere berezitasuna izango du.

- Era berean, KORRIKA TXIKIA ekimena indartu egin nahi da, aukera ematen digulako eskola barruan egindako lana kanporatzeko eta euskararen aldeko elkartasuna adierazteko.

Horri lotu zaio HH eta LHko ziklokoek, zuzolanean, osatuko duten horma-irudia, gero KORRIKA TXIKIAN banderola gisa eramango dena.

KORRIKA TXIKIA molde berezian bukatzea ere proposatua da: iristerakoan, zaharrenek ohorezko hesia egitea gazteenei, bakoitzaren indarra eta ahalmenak txalotuz.

Jarduerak antolatzerakoan progresio bat bilatu nahi izan dugu, ikasleek KORRIKArekin eta honek helarazi nahi duen mezuarekin bat egin dezaten eta KORRIKAK Euskal Herriko bazterrak zeharkatzen dituen egunetan ikasleak ere KORRIKAREN parte senti daitezten.

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

JARDUERAK LH2	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
1. LELOAREN GOGOETA	<ul style="list-style-type: none"> - KORRIKA 19ren giroitze-lana eta aurkezpena. - Jakinmina, gogoeta eta elkarrizketa bultzatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Jolas kooperatibo batekin asmaraziko da Euskahaldun leloa. - Tutoreak KORRIKari buruz galdetuko du, eta Euskahaldun leloari buruz ere gogoetatuko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Saio bat gelan 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako tutorea
2. KANTA	<ul style="list-style-type: none"> - KORRIKA 19ren giroitze-lana eta aurkezpena. - Entzumena, jakintza orokorra eta hiztegia lantzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kantaren hitzak hutsuneekin idatziz eman, paperezko euskarrian. - Kanta pare bat aldiz entzun, hutsuneak betez. - Hutsuneak zein diren talde handian ikusi. - Sarrera/irteera orduetan, jolas-orduan ...KORRIKA 19ren abestia jarri. - Etxean, www.korrika.eus webgunearen bidez, aurtengo kanta, baita aurreko edizioetakoak ikusi/entzun. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kanta entzun eta bideoklipa ikusi lehen egunean. - KORRIKAK irauten duen bitartean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako tutorea edota Musika irakaslea.

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

<p>3. IPUINA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Kontakizuna entzutea: aditu eta ulertzeko gaitasuna lantzea. - Hiztegia lantzea. - Ahozkotasuna, irakurketa, eta irudimena erabiltzea eta lantzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak ipuina dramatizatuko du, baina ez osoki kontatuz. - Zurezko izarraren inguruan, asmakizun-zatia izango da, beharrez enigma etxera eramanez. - Enigmaren erantzuna aurkituz bezala, ipuinaren bukaera kontatu. - Ipuinaren hiztegia eta ulermena landu. - Ipuinaren bukaera birrasmatu taldekoetan: idatzi eta irakurri. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ipuina lantzeko, 3/4 saio erabiltzea aurreikusten da. - Azken saio bat aurreikusten da irakurketa lantzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako tutorea.
<p>4. IBILBIDEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - KORRIKA 19ren ibilbidea lantzea - Euskal Herria ezagutzea - Euskal Herriko hainbat herri ezagutzeko eta deskribatzeko gaitasuna garatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko mapa gela barruan jarri eta, bertan, KORRIKA 18ren ibilbidea markatuko dugu: etapa bakoitzaren hasiera eta bukaera. 	<ul style="list-style-type: none"> - KORRIKAK irauten duen egun guztietan 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako tutorea



IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

<p>5. KORRIKA-JOKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - KORRIKA 19ren ibilbidea molde ludikoagoan lantzea, mahai-joko baten bidez - Euskara eta euskal kultura molde ludikoan lantzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Materiala prestatu - Jokoa taldetxoetan ala talde handian planteatu, kopuruaren arabera. - Adin ezberdinak nahasteko aukera ere ematen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Materiala prestatu ostean, saio bakarra nahikoa da 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako tutoreak, elkarlanean
<p>6. EUSKARA LOREA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskararekiko duten harremana ezagutzea. - Euskararekiko dauzkaten ahalmenetaz ohartaraztea. - Euskararen inguruko mezu positiboak luzatzea, horien konpromisoa azpimarratuz. - Talde-lana sustatzea, elkarriketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Petalorik gabeko lore bat handiz marraztuko da, "euskara" idatziz bihotzean. - Ikasleek taldeka osatuko dituzte petaloak, bakoitzak euskarari lotzen dion hitz bat adostuz. - Hitz ezberdinak kontutan harturik, elkarriketa bat bultzatuko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Saio bakarra nahikoa da, jakinez lorea gordeko dela 7. eta 8. jardueran lantzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako tutorea baita adierazpen plastikako irakaslea

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

<p>7. LEKUKOA*</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazpen plastikorako oinarritzko teknikak ezagutzea. - Sormena lantzea, bertsoaren bidez. - Ikasleak lekukoaren sinbologiaz ohartaraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gela bakoitzak lekuko erraldoi bana izango du. - Ikasleak bi taldeetan banatuko dira: petoa landuko dutenak alde batetik, lekukoa landuko dutenak bestetik. - Lekukoa landuko dutenak, bi azpi-taldeetan banatuko dira: lekuko erraldoia ekoiztuko dutenak/bertsoa landuko dutenak - Aurreko jarduerako lorea erabiliko da bertsoa sortzeko - Bertsoa A3 paperean idatzita, lekuko erraldoiaren barruan sartuko da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tailer handi moduan planteatua da saioa, KORRIKA TXIKIA girotzeko gisan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazpen plastikako irakaslea eta gelako tutorea elkarlanean
<p>8. PETOA*</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazpen plastikorako oinarritzko teknikak eta baliabideak erabiltzea. - A21 plangintzarekiko errespetua lantzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleak bi taldeetan banatuko dira: petoa landuko dutenak alde batetik, lekukoa landuko dutenak bestetik. - Petoa landuko dutenak, bi azpi-taldeetan banatuko dira: petoak ekoiztuko dituztenak/leloa asmatuko dutenak - Aurreko jarduerako lorea erabiliko da leloa asmatzeko - Petoaren atzean idatziko da asmatutako leloa. - Erabiliko ditugun materialak ahalik eta berrerabilgarri edo birziklagarrienak izango dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tailer handi moduan planteatua da saioa, KORRIKA TXIKIA girotzeko gisan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazpen plastikako irakaslea eta gelako tutorea elkarlanean

* Saio horiek simultaneoki egitea planteatzeko proposamena egina da hemen, baina bestela ere egin daiteke, kopuruak handiegi balira-edo.

IRAKASLEARENTZAKO ORIENTABIDEAK

<p>9. KORRIKA TXIKIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - KORRIKA 19ren girotze-lana. 	<ul style="list-style-type: none"> - 8. jardueran sortutako petoa jantzita aterako dira HH eta LHko ikasle guztiak. - KORRIKako kanta ezberdinak erabiliko dira animaziorako, megafonoa erabiliz. - LH3koek eramango dute ikastetxeetan auzolanean eraiki horma-irudia, banderola gisa. - LH2koek sortutako lekuko handiak eskuz-esku pasako dira, eta bukaeran barnean dauden bertsoak kantatuko dira. - Iristerakoan, ikasle zaharrenek ohorezko hesia osatuko dute, gazteenak beren urratsean pasatuko direnean txalotzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - KORRIKA herritik pasatzen den egunean, baita aurreko egunetan ere bai. - Ikastetxeko ordutegian. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako tutorea.
---------------------------------	---	---	---	---



**8-10 URTE
JARDUERA**

LELOAREN HAUSNARKETA

SARRERA

Jarduera hau edizio bakoitzean errepikatzen den horietakoa da. Klasiko bihurtu arren, komeni da norberak berrikuntza bilatzeko saiakera egitea.

Gure proposamena da Korrikaren gaian murgilduz sartzea jolas kooperatibo sinple baten bidez: Hitz sekretua.

Gaiarekiko jakinmina piztea, taldelana sustatzea, besteak entzunez, ditugu helburu nagusiak.

PROZEDURA

Ikasleak hamaika talde txikitari banatuko dira, taldetxoaren arteko kopuruak orekatzen saiatuz. Taldetxo bakoitzak tamain handiko orrialde zuri bat izango du, baita margoak.

Irakasleak taldetxo bakoitzari EUSKAHALDUN osatzen duen hizki bat belarrira xuxurlatuko du, nahas-mahas: gainerako taldetxoek ez dute jakin beharko besteak zertan ari diren. Sekretua ondo-ondo gordetzea eskatuko zaio taldetxo bakoitzari.

Ondoren, talde bakoitzak ekin beharko dio bere hizkia margotzeari, ahal bezain koloretsu. Debekatuta dago beste taldetxoetara joatea!

Taldetxo bakoitzak bere hizkia idaztea eta margotzea bukatua izango duenean, taldetxo guztiak elkarri begira jarriko dira. Oraingoan bai: bakoitzak bere hizkia ondo-ondo azaldu beharko du talde handian! Ea letra-zopa horretatik asmatzen duten hitza: EUSKAHALDUN!

Irakasleak ikasleei salatuko die KORRIKA 19ren leloa dela Euskahaldun. Talde handian, elkarrizketa bat planteatuko da, ikusteko ea ikasle guztiak jabetzen diren KORRIKAZ: baten bati eskatuko zaio azaltzea KORRIKA zer den, eta lagunei galdetuko zaie osatzea, bukaeran ziurtatzeko

ikasle guztiak badakitela zer den. Beharrez, argazki edo bideoen bat gorderik edukiko dugu, KORRIKAREN irudiak azaltzeko.

Jolasa bukatzerakoan, ikasleak taldetxotan jarriko dira berriz. Irakasleak galdetuko die bost minutuz hausnartzea EUSKAHALDUN kontzeptuaz: zein hitz dauden hor batuta, zer ulertzen duten, nola interpretatzen duten. Talde bakoitzak, bozeramale bat aukeratuko du, taldean hausnartu denaz gogoetatzeko.

Ikasleen erantzunetara mugatuko dugu hausnarketa, 6. jardueran (loarearenean) gaia sakontzeko aukera izango baita.

BALIABIDEAK

- Tamain handiko orrialde zuriak
- Margoak
- Aurreko edizioetako argazkiak.

**EUSK
AHAL
DUN!**

KANTA “DENOK KORRIKARA!”

SARRERA

Kantuaren bidez, ikasleak eta ikastetxeak Korrikan girotzeko helburua dago. Horrez gain, kantuaren letretan hutsuneak utziz, ikasleen entzumena eta ulermena lantzeko aukera dago, baita kontzeptu edo pertsona/leku izen batzuk ikasteko, hiztegia lantzeko. Bukatzeko, aurreko edizioetako kantuei ere arreta eskainiko zaie.

PROZEDURA

- Gelan, kantuaren letrak hutsuneekin euskarri idatzian emango zaio ikasle bakoitzari (binaka edota taldeka egiteko aukera ere badago).
- Kantua entzutera emango da bi aldiz, ikasleak hutsuneak betetzen saiatzeko.
- Hirugarren entzunaldiaz baliatuz, talde handian emango dira erantzunak.
- Irakasleak aukera dezake zein hitz ezkutatu nahi duen, ikasleen adinen arabera, edo landu nahiduen kontutan hartuz (Adibidez, Xalbadorri buruzko aipamen berezia egin nahi badu, kantuko “Xalbadorren” hitza ezkutatu du; lotura ere egin dezake azken bertsoarekin, Herria eta Hizkuntzatik hartua dena...)
- Kantua komentatu-eta, behar den helbidea emango zaie ikasleei, aurreko edizioetako bideklipak begira ditzaten. Hurrengo saioan, bakoitzak esan beharko du zein izan duen gustukoena, zergatik, eta gehienek gustukoena kanta pasako da. Aurreko edizioetako kantuak erabil daitezke ikastetxea girotzeko, batez ere irratik dauden tokietan.

BALIABIDEAK

- Diskoak, internet
- Kantuaren letrak hutsuneekin, paperezko euskarrian (hurrengo orrialdea)
- Korrikaren webgunean, bideoklipak itsastea multimedia sailean.



KANTA “ DENOK KORRIKARA!”

Euskara da kanpora ta denok Korrikara

O Euskara lauda ezan _____ herria
handikan baitu Korrikak hasiera berria
_____ ospatzekotan ba kilometro azkena
_____ babesean emanen du lehena

**UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! (BER)
EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK
KORRIKARA.**

Euskaldunak herrietan _____ gaitezen
eta gure mintzaeraz denok _____ gagozen,
Urepeletik Bilbora _____ gidatzen
_____ eten gabe orok laster goazen

**UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! (BER)
EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK
KORRIKARA.**

Euskahaldun den guztiak burua _____ beza,
_____ ikusteko euskaldunon hizkuntza.
Korrikazale guztiak hauxe _____ dute,
nola zabaldua dagon _____ bezate.

**UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! (BER)
EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK
KORRIKARA.**

Gogo konpli dezala euskal _____ ,
euskahaldun bihurtuz datozen _____ .
10 egun eta _____ Korrika ta Euskara;
euskahaldunei eskerrak pizturik _____ .

**UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! (BER)
EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK
KORRIKARA.**

Batzuk herriaz orroit, euskaraz _____
bertzek euskara maite, herria _____ ;
hizkuntza ta herria _____ ez doatzi,
berek nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi

**UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! (BER)
EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK
KORRIKARA.**

KANTA “DENOK KORRIKARA!”

Euskara da kanpora ta denok Korrikara

O Euskara lauda ezan Urepele herria
handikan baitu Korrikak hasiera berria
Bilbon ospatzekotan ba kilometro azkena
Xalbadoren babesean emanen du lehena

UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK KORRIKARA

Euskaldunak herrietan ahaldun gaitzen
eta gure mintzaeraz denak harro gagozen,
Urepeletik Bilbora lekukoa gidatzen
Giza katea eten gabe orok laster goazen

UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK KORRIKARA

Euskahaldun den guztiak burua altxa beza,
gorenean ikusteko euskaldunon hizkuntza.
Korrikazale guztiek hauxe eskatzen dute,
nola zabaldua dagon prezia bezate.

UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK KORRIKARA

Gogo konpli dezala euskal jendarteak,
euskahaldun bihurtuz datozen urteak.
10 egun eta gaez Korrika ta Euskara;
euskahaldunei eskerrak pizturik sugarra.

UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK KORRIKARA

Batzuk herriaz orroit, euskaraz ahantzi
bertzek euskara maite, herria gaitzetsi;
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,
berex nahi daukute konpreniarazi
bata bertzea gabe ez daizkela bizi

UREPELETIK BILBORA ABIA DADIN KORRIKA ! EUSKARA DA KANPORA ETA DENOK KORRIKARA

IPUINA

SARRERA

Jarduera hau edizio bakoitzean errepikatzen den horietakoa da. Klasikoa dirudien arren, komeni da norberak berrikuntza bilatzeko saiakera egitea.

KORRIKA 19ren leloa Euskahaldun izanez, ahalmenaz gogoetatzeko parada eskaini nahi du ipuinak.

Horretarako, ikasleen irudimena eta sormena sustatu nahi dira hemen.

PROZEDURA

Lehen saioan, irakasleak ipuina ahots ozenez irakurriko du, dramatizazio eta intonazio egokia baliatuz, baina ez osoki: izarraren misterioa zein den ez du salatuko (ipuinen bukaera ez du kontatuko).

- Utziko die ikasleei pentsatzen. Inork ez baldin badu asmatzen, enigma etxera ere eramandezakete, bertan gogoetatzeko. Esperientzia hortzetako txotxekin egin dezaketela iradokiko die irakasleak.
- Bigarren saioan, irakasleak ikasleei galdetuko die ea erantzuna asmatu duten, eta ipuinaren bukaera kontatuko du.
- Jarraian, ikasleei ipuinari buruzko galderak egingo zaizkie, ulermena eta hiztegia lantzeko (landu beharreko hitzak azpimarratuta daude, eta sinonimoak jarri dira bukaeran).
- Hirugarren saioan, irakasleak bikoteka edo taldetxoetan banatuko dira, eskatuz ipuinaren bukaera berriz asmatzeko. Taldetxo bakoitzak idazkari bat aukeratuko du, ipuinaren bukaera berria idatziz uzteko, baita bozeramaileak, beraiek asmatutakoa gela aurrean irakurtzeko. Horretarako astirik ez balitz, idatziak utz daitezke agerian (hormetan zintzilik-edo), bakoitzak nahi duen momentuan irakurtzeko gisan.
- Azken saio bat erabil daiteke irakurketa lantzeko, ipuina dagoen bezala hartuz, ala irakasleek asmatutako bukaerak txertatuz.

BALIABIDEAK

- Ipuina
- Hortzetako txotx edo palilloak (borobilak askoz hobe)
- Ura
- Ipuinaren bukaera berridazteko materiala

IPUINA “ PERU PIRATAREN ALTXORRIK HANDIENA”

Peru, pirata zen. Bai, PIRATA.

Ikusten munduan boga eta boga dabilzan gizon itsusi eta indartsu haiek? Itsasontzi ederrenek gidaturik, jantzi dotorenek bezituri, ezpata zorrotzenek babesturik, harribitxi distiratsuenek apaindurik... Horrelakoak izan ohi dira piratak.

Guzti-guztiak.

Peru salbu.

Peru, mutiko gazte eta fina zen, argala bezain lotsatia. Zuloz beteriko ator zaharrak zion bizkarra estaltzen, eta galtza aise handiegiek, gerria ahal bezala inguratzen.

Hamabi urte zituela, Peru pirata hasiberria zen. Bizarraundi kapitainak bere itsasontzian onartu zuen, garbiketa-lanen truke, eta ogi-mutur baten sari. Ezpataren orde, Peruk erratza zuen eskuan.

Dena-dela, Peru segur zegoen, handitzean, pirata dotore eta ospetsua izanen zela. Egun batez, bai. Segur.

Bitartean, Peruk horrela igarotzen zituen egunak: itsasontziko olak torra eta torra, txoko guztiak karraka, eta hori dena, tripa kurrukuka ari zitzaiola. Peruk ez zuen jateko anitzen menturarik, baina itsasoan ibiltzeak, aurpegia haizeak ferekaturik, gosea urtarazten zion.

Egun hartan, Peruk Bizarraundiren gela garbitu behar zuen. Leku hura gustukoa zuen Peruk: ogi beroaren usain gozoa zegoen beti, eta paretak sekulako dirdira zuten: urrea bazter guztietatik isurtzen zela zirudien.

Ohe ondoko mahaitxoa garbitzen ari zela, Peruri sekulako gogoia piztu zitzaion, berak ez zekiela zergatik: mahaitxoaren tiranta ireki nahi zuen, jakinminez, soil-soilik ikusteko zer zegoen hor barnean.

Baina lehenik, bazterretan ongi begiratu zuen, norbaitek ikusiko zuela beldurrez. Burua ezker, burua eskuin, burua gibelera: ez zegoen inor. Tiranta zabaldu zuen, poliki-poliki. Hara! Ez zegoen ezer.

Edo bai: izar bat. Hala uste izan zuen Peruk. Baina izar berezia zen hura: ez zuen distirarik. Ez urrerik, ez harribitxirik. Zurezkoa zen. Hamar adarretako zurezko izar txiki eta fina.

Peruk izarra eskuetan zuela... “ZERTAN HABIL HEMEN?” Bizarraundiren garrasiak Peru harritu zuen. Mututurik geratu zen, kapitaina hantxe ikustean.

- Zertan habil hemen?
- Ga... ga... garbitzen!
- Garbitzen? Ala lapurtzen?
- Ez, ez, kapitaina! Soil-soilik begiratzen...
- Nire izarra eskuetan harturik? Horixe duk begiratzeko molde arraroa...
- Barkatu, barkatu, otoi...
- Ez da pentsatu ere! Nire gauzak ezin daitezke ukitu. Hoa PRESO!
- Preso? Ez, eeeeeeeeeeeeeee!

Baina Bizarraundik Peru belarritik hartu zuen herrestan, gure mutikoa oihuka ari zela. Eta itsasontziko lekuri beldurgarrienera eraman zuen: sotora. Bertan, petra! batetik zintzilik zegoen kaiola txiki batean sartu zuen Peru. Klink eta klink eta klank, gakoz.

Peruk zurezko izarra oraindik eskuetan zuen. Bizarraundik hauxe erran zion:

IPUINA “ PERU PIRATAREN ALTXORRIK HANDIENA”

“Begira zer eginen diagun: izar honek hamar adar ditik. Lortzen baldin baduk izarra hamar adarretatik bost adarretara bihurtzea, aske geratuko haiz. Baina kontuz: bost adarretakoa bilakarazi behar duk... izarra UKITU GABE!”

Hori erranik, Bizarraundi sototik atera zen, Peru gaixoa dardarka utzirik ilunpean. Desesperaturik zegoen:

“Baina nola demontre egingo dut ba, kapitainak eskatutakoa? Hamar adarretatik bostetara pasatzea, izarra ukitu gabe, ezinezkoa da-eta!”

Momentu bat igaro ondoan, Peruri gauza bat bururatu zitzaion: izarraren gainean ufatuz, bost adarretakoa bilakatuko zen, bai horixe! Peruk izarra kaiola-zolan pausatu zuen, eta bere baitatik atera zezakeen haizerik bortitzena ufatu zuen izarraren gainera: ufa eta ufa, buha eta buha!

Baina izarra ez zen mugitu ere egin.

Orduan, Peruri beste gauza bat bururatu zitzaion: modurik indartsuenean pentsatuko zuen izarra hamar adarretatik bostetara pasatzea, bai horixe! Begiak itxi, burua esku artean koka, eta bost adarrei pentsatu zuen azkar, gogor, sendo, indartsu.

Baina izarra ez zen mugitu ere egin.

Itsasoa bortitz zebilen kanpoan. Orduan, Peruri beste gauza bat bururatu zitzaion: bere kaiola olatuek itsasontzia bezala inarrosiko zuen, bai horixe! Kaiola barretatik hartu, eta dilin-dalan, ezker-eskuin, gora-behera gogor astindu zuen.

Baina izarrak, barra artetik ihes egin zuen, kaiolatik kanpo, oraindik hamar adar zituela.

Peruren zalapartak entzunik, Bizarraundi sotora brau sartu zen:

- Zer egin duk, ba?

- Ezinezkoa da. Zure izarra ezin da aldatu ukitu gabe.

- Noski baietz!

- Nire ahal indartsuenak erabili egin ditut, baina izarra ez da mugitu ere egin.

- Gure ahalmena ez duk soilik indarrezkoa, mutiko. Izar hau, mendien tontorretan bizi den artzain batek eman zidan aspaldi, nire altxorrik handiena zein den inoiz ez ahazteko.

Bizarraundik izarra lurretik bildu, eta Peruri luzatu zion, hauxe erranez:

- “Pentsa ezak zein den hire altxorrik handiena, eta izarrak zabalduko dik kaiolako atea”.

Bizarraundi sototik atera bezain laster, Peru bere altxorrik handienei pentsatzen hasi zen.

Bururatu zitzaion beste piratekin aurkitu kutxa bat, egun batez, uharte urruti batean, harribitxi eta urrez betea zegoena.

Baina izarra ez zen mugitu ere egin.

Bururatu zitzaizkion portuko itsasontzirik handienak, kapitaina dotoreak barran, ezpata erraldoiak altzatzen.

Baina izarra ez zen mugitu ere egin.

Desesperazioak jo zuen Peru, berriz ere. Orduan, begiak itxi, eta bere burua ikusi zuen itsasontzi gainean. Olatuen gainetik, boga eta boga, eguzkiari begira. Haizeak belak hantzen zituela, eta Peruren aurpegia ferekatzen.

Hori gogoratuz, Peru negarrez hasi zen. Begiak zabaldu zituen, eta malkoek ihes egin zioten, pirripitaka mateletan behera, tintaka-tantaka Bizarraundiren izar gainera.

IPUINA “PERU PIRATAREN ALTXORRIK HANDIENA”

Orduan, Peruk izarra mugitzen ikusi zuen. Adarrak poliki-poliki biltzen ari ziren, Peruk ukitu gabe. Hamar, zortzi, sei... bost! Izarra bost adarretakoa zen, Peruk ukitu gabe!

Kaiolako atea klink eta klink eta klank zabaldu zen.

Orduan, Peruk ulertu egin zuen bere altxorrik handiena, askatasuna zela. Ez harribitxiak, ez urrea, ez itsasontziak eta ezpatak ukaitea, baina mundu honetan aske sentitzea eta biziitzea.

Sototik ateratzean, Bizarraundik irriño batez egin zion harrera, hauxe erranez:

“Gure ahalmenak ez dik mugarrik, gu txikiak izanik ere. Garen bezalakoak gaituk. Gorde ezak izarra hirekin, mutiko, eta hoa boga eta boga, munduan gaindi”.

Baina Peruk ez zuen pirata izan nahi. Izarra sakelan sartu, eta mendi tontorretara buruz joan zen. Handitzean, Peru artzaina izanen zen. Egun batez, bai. Segur.

HIZTEGIA

Salbu: izan ezik.

Gerria: gerruntzea.

Segur: ziur.

Torra(tu): igurtzi.

Urtarazten: urtu aditzetik; desagertu zentzuan, hemen.

Dirdira: distira.

Tiranta: tiradera.

Zurezkoa: egurrezkoa.

Mututurik: mutu, hitz gabe.

Herrestan: arrastaka.

Petral: habe.

Desesperaturik: itzaropena galdurik.

Buha: ufa.

Sendo: tinke, berme.

Olatuek: uhinek.

Zalapartak: kalapitak; harramantza, zarata.

Laster: azkar, fite.

Mateletan: masailetan.

Harrera: ongi-etorria.

Tontorretara: gailurretara, kaskoetara.

IBILBIDEA

SARRERA

Jarduera honen helburua KORRIKA 19ren jarraipena egitea da. Horretarako, AEK koordinakundeak www.korrika.eus webgunean erakusgai duen GPS bilatzailea erabiliko da.

KORRIKA egunez egun zein bazterretan dagoen jakiteaz gain, Euskal Herriko txoko eta bazterrak gehiago ezagutzeko aukera izango dugu.

PROZEDURA

- Euskal Herriko mapa gela barruan edo ikastolako pasabideetan jarriko da eta bertan KORRIKA 19ren ibilbidea markatuko dugu: KORRIKA non hasi, non amaitu eta egun bakoitzeko etapan hasiera eta amaiera puntuak.
- Egun bakoitzean, hasiera-puntutik bukaerarainoko ibilbidea markatuko da.
- Eguztietan antzeko orduan webgunea begiratu eta momentu horretan KORRIKA non dagoen markatuko da mapan.
- Aukera ikusiko balitz, prentsan topatutako argazkiak mapan kokatu eta lekuen deskribapenak osatuko ditugu.

BALIABIDEAK

- Euskal Herriko mapa.
- KORRIKAren ibilbidea.
- www.korrika.org webgunea.
- Eranskailuak.



19.korrika IBILBIDEA

Urepeletik Bilbora • 2015eko martxoaren 19tik 29ra

IBILBIDEA

MARTXOAK 19, OSTEGUNA

UREPELE	17:00
BANKA	17:58
BAIGORRI	19:03
DONIBANE GARAZI	20:08

MARTXOAK 20, OSTIRALA

MAULE	00:34
DONAPALEU	03:21
HAZPARNE	06:31
KANBO	07:36
EZPELETA	08:53
AINHOA	09:25
DANTXARINEA	09:45
URDAZUBI	09:51
AMAIUR	11:21
ELIZONDO	12:06
IRURITA	12:23
ALMANDOZ	13:37
GELBENTZU	16:20
MAKIRRIAIN	18:02
ATARRABIA	18:41
UHARTE	18:54
ATARRABIA	19:09
BURLATA	19:14
SARRIGUREN	19:37
MUTILOA	20:25
IRUÑEA	20:43

MARTXOAK 21, LARUNBATA

BERRIOZAR	00:03
IRURTZUN	01:57
UITZI	04:17
LEITZA	05:02
BERASTEGI	05:33
IBARRA	07:04
TOLOSA	07:11
AMASA-VILLABONA	08:29
ZIZURKIL	08:48
ADUNA	09:01
ANDOAIN	09:14
URNIETA	09:53
HERNANI	10:19
ASTIGARRAGA	11:05
ERRETERIA	11:37
OIARTZUN	12:23
IRUN	13:11
BEHOBIA	14:00
BERA	14:50
LESAKA	15:36
IGANTZI	16:12
ETXALAR	16:42
BERA	17:06
IBARDIN	17:48
AZKAIN	18:53
SARA	19:48
SENPERE	20:37
UZTARITZE	22:02
BAIONA	23:25

MARTXOAK 22, IGANDEA

ANGELU	00:43
BIARRITZE	01:22
GETARIA	03:05
DONIBANE LOHIZUNE	03:40
HENDAIA	05:37
HONDARRIBIA	06:09
IRUN	06:48
LEZO	07:13
PASAI DONIBANE	07:48
DONOSTIA	08:53
LASARTE-ORIA	12:31
ORIO	14:40
ZARAUZ	15:31
GETARIA	16:21
ZUMAIA	16:55
ZESTOA	17:40
AZPEITIA	18:38
AZKOITIA	19:31
ERREZIL	20:32
TOLOSA	22:52
LEGORRETA	23:44

MARTXOAK 23, ASTELEHENA

ITSASONDO	00:10
ORDIZIA	00:23
BEASAIN	00:58
LAZKAO	01:23
OLABERRIA	01:42
ZUMARRAGA	04:04

IBILBIDEA

URRETXU	04:24
OÑATI	06:34
ARRASATE	08:00
ARETXABAETA	08:25
ESKORIATZA	08:50
ARAMAIO	09:25
BERGARA	11:05
ELGETA	12:08
ELORRIO	13:05
ABADIÑO	13:45
DURANGO	14:10
IURRETA	14:25
BERRIZ	15:10
ZALDIBAR	15:40
MALLABIA	16:15
ERMUA	16:28
EIBAR	17:00
SORALUZE	17:35
ELGOIBAR	18:15
DEBA	20:10
MUTRIKU	20:58
ONDARROA	21:38
MARKINA-XEMEIN	22:27
AULESTI	23:42

MARTXOAK 24, ASTEARTEA

LEKEITIO	01:30
IBARRANGELU	02:49
ELANTXOBE	03:10
KORTEZUBI	04:19
GERNIKA	04:38

MUXIKA	05:00
SUKARRIETA	06:46
BERMEO	07:13
BAKIO	08:38
MUNGIA	09:43
URDULIZ	11:38
GORLIZ	12:00
PLENTZIA	12:23
BARRIKA	12:43
SOPELA	13:11
BERANGO	13:50
ALGORTA	14:10
LEIOA	15:25
ERANDIO	16:04
BARAKALDO	17:10
SESTAO	18:16
PORTUGALETE	18:38
SANTURTZI	19:06
TRAPAGARAN	19:47
ORTUELLA	20:32
ABANTO	21:06
MUSKIZ	21:55
GALDAMES	22:41
SOPUERTA	23:14
BALMASEDA	23:57

MARTXOAK 25, ASTEAZKENA

ZALLA	00:20
ARANGUREN	00:57
GORDEXOLA	01:47
OKONDO	02:16

LAUDIO	02:55
AIARA	03:53
URDUÑA	05:55
AMURRIO	06:50
MURGIA	09:14
IZARRA	10:10
KUARTANGO	10:35
SUBIJANA	11:55
ARGANTZUN	13:15
TREBIÑU	14:12
URIZAHARRA	15:50
GUARDIA	17:42
ELTZIEGO	18:21
LAPUEBLA LABARKA	19:00
OION	20:42
BIANA	21:36
MENDABIA	23:40

MARTXOAK 26, OSTEGUNA

LODOSA	00:51
ANDOSILLA	02:28
AZAGRA	03:32
MILAGRO	04:43
KADREITA	05:48
BALTIERRA	06:14
ARKETAS	06:37
KABANILLAS	08:40
RIBAFORADA	09:32
ABLITAS	10:44
KASKANTE	11:23
TUTERA	12:21

IBILBIDEA

CAPARROSO.....	16:23
MURILLO DEL CUENDE.....	17:20
PITILLAS.....	17:47
BEIRE.....	18:12
ERRIBERRI.....	18:38
TAFALLA.....	19:20
SAN MARTIN DE UNX.....	20:41
LERGA.....	21:39
ESLABA.....	22:12
AIBAR.....	23:30

MARTXOAK 27, OSTIRALA

IRUNBERRI.....	00:39
NABASKOZE.....	03:00
ESPARTZA.....	04:53
EZKAROTZE.....	05:16
OTSAGI.....	05:34
ABAUURREGAINA.....	07:11
ABAUURREPEA.....	07:41
GARRALDA.....	08:46
AURIZBERRI.....	09:32
NAGORE.....	11:09
URROTZ.....	13:13
TEBAS.....	15:20
ARRIZABALAGA.....	15:29
GARES.....	17:39
ZIRAUKI.....	18:44
LORKA.....	19:30
LIZARRA.....	20:25
ABARTUZUA.....	21:20
MUEZ.....	22:25

IZURZU.....	23:16
-------------	-------


MARTXOAK 28, LARUNBATA

ETXAURI.....	00:17
IRURTZUN.....	02:21
SATRUSTEGI.....	02:53
LAKUNTZA.....	04:12
ETXARRI-ARANATZ.....	04:44
ALTSASU.....	06:08
ZIORDIA.....	07:06
EGINO.....	07:39
ARAIA.....	08:15
ZALDUONDO.....	08:54
AGURAIN.....	09:26
DULANTZI.....	11:08
GASTEIZ.....	12:25
ETXEARRI-IBIÑA.....	16:29
ONDATEGI-GOPEGI.....	17:07
MURUA.....	17:21
UBIDEA.....	18:26
ZEANURI.....	19:40
AREATZA.....	20:08
ARTEA.....	20:14
ARANTZAZU.....	20:43
IGORRE.....	20:57
ZEBERIO.....	21:52
UGAO.....	22:44
ARRIGORRIAGA.....	23:17
BASAURI.....	23:42

MARTXOAK 29, IGANDEA

ETXEARRI.....	00:34
GALDAKAO.....	01:10
USANSOLO.....	01:36
BEDIA.....	02:59
LEMOA.....	03:15
ZORNOTZA.....	03:41
LARRABETZU.....	04:50
LEZAMA.....	05:25
ZAMUDIO.....	05:41
DERIO.....	06:03
LOIU.....	06:24
SONDIKA.....	06:37
ERANDIO.....	07:00
BILBO.....	07:23
AMAIERA.....	12:30

MAPA



KORRIKA JOKOA

Jokoaren helburua.

- Korrika 19k egingo duen ibilbideari jarraiki, nork bere fitxa Urepeletik Bilbora eramatea.
- Irabazlea izango da Bilbora aurrena heltzen den jokalaria.

Jokoa prestatu.

- Jokoa hasi aurretik, presta itzazu beharko dituzun osagai guztiak: mapa, txartelak, dadoak, fitxak...
- Mapa hurrengo orrialdean duzu. Egin horren kopia handia, A3 neurrikoa, esaterako. Kopia koloretan egin ahal baduzu eta mapa kartoi mehe baten gainean itsasten baduzu, askoz ere txukunago geratuko zaizu.
- Txartelak ere hurrengo orrialdeetan dituzu. Lehenengo eta behin, kopiatu eta moztu egin beharko dituzu; ondoren, multzoka jarri beharko dituzu gaika bilduta (geografiari buruzko galderak, euskarari buruzkoak eta Korrikari buruzkoak), eta ahoz behera utzi beharko dituzu maparen ondoan. Txartelak errazago bereizteko, koloretako folioetan kopia ditzakezu: geografiari buruzko galderak, esaterako, folio berdeetan; euskarari buruzkoak, horietan; eta Korrikari buruzkoak, laranjetan.
- Dadoak eta fitxak beste edozein jokotatik atera ditzakezu.




Jokalariak antolatu.

- Kopuruaren arabera, bakarka, binaka ala hiruak jokatu dugu: sei jokalaria baino gutxiago bagaude, bakarka jokatu dugu; sei eta hamabi bitartean bagaude, binaka; eta hamabi jokalaritik gora egonez gero, hiruak.

Jokoaren arauak.


- Jokoa hasiera emateko, jokalaria guztiak dadoa bota eta zenbakirik altuena ateratzen duenak emango dio hasiera jokoa.
- Jokalaria dadoa bota eta dagokion laukiraino mugituko du fitxa. Lauki horretan, letra bat aurkituko du: E (euskara), G (geografia), K (Korrika) edo Z (zortea). Jokalaria laukiko letrari dagokion txartel bat hartu eta, berau ikusi gabe, ondoko jokalaria emango dio irakur dezan.
- E, G eta K multzoetan, galderak daude: jokalaria galderari zuzen erantzuten badiu, dadoa berriro bota ahal izango du; txarto erantzuten badu, ordea, hurrengo jokalaria txanda izango da. Erantzunak txarteletan bertan daude azpimarratuta. Jokalaria batek, gehienez, hiru aldiz jarraian bota ahal izango du dadoa.
- Z letradun laukietan eroriz gero, bertan esaten dena egin behar izango du jokalaria.
- Txartel horietan hieroglifo bat ateratzen bada, minutu bat izango du jokalaria erantzuna asmatzeko; asmatzen badu, dadoa bota eta aurrera egin ahal izango du; bestela, txanda galduko du.
- Txartel bat erabili ondoren, sartu berriro dagokion multzoaren behealdean.
- Fitxa bi ezin izango dira batera lauki berebean egon; hortaz, jokalaria baten fitxa beste batena dagoen laukira iristen bada, aurretik zegoen fitxak atzera egin beharko du ibilbidean zehar, azkenekoz igarotako hiriburura iritsi arte.



<p>K</p> <p>Badakizu nondik nora joan zen lehenengo Korrika?</p> <p>a. Andoaindik Baionara. b. Urepeletik Bilbora. c. Oñatitik Bilbora.</p>	<p>K</p> <p>Korrikan egurrezko lekuko bat eramaten da Euskal Herrian zehar. Badakizu nork egin zuen lehenengo lekukoa?</p> <p>a. Jorge Oteizak. b. Remigio Mendiburuk. c. Juan Gorritik.</p>	<p>K</p> <p>Korrika bi urterik behin ospatzen denez, zenbat denbora beharko dugu lau Korrika ikusteko?</p> <p>ERANTZUNA: 6 urte inguru. Adibidez: Korrika 16 2009an ospatu zen; Korrika 17, 2011n; Korrika 18, 2013an; eta Korrika, 19, 2015ean. Beraz, lau Korrika sei urtean.</p>
<p>K</p> <p>Badakizu zenbat kilometro egin ohi diren guztira Korrikan?</p> <p>a. 2.100 kilometro inguru. b. 1.000 kilometro inguru. c. Ia 5.000 kilometro.</p>	<p>K</p> <p>Korrikan, lekuko bat eramaten da herriz herri. Badakizu zer gordetzen den lekukoaren barruan?</p> <p>a. Omenduaren izena. b. Mezu sekretu bat. c. Ezer ez, lekukoa trinkoa¹ da eta.</p> <p>1. Trinko: macizo</p>	<p>K</p> <p>Korrika bakoitzak omendu bana izaten du. Badakizu nor omenduen zuten azken Korrikak?</p> <p>a. Euskara-ikasleak. b. Euskaltzaindia. c. Euskal idazleak.</p>
<p>K</p> <p>Badakizu nork egin zuen lehenengo Korrikako kanta?</p> <p>a. Mikel Laboak. b. Iparragirrek. c. Xabier Amurizak.</p>	<p>K</p> <p>Korrika Bilbora iritsi da. Bat-batean, amaitzeko metro batzuk falta direnean, esprinta egin eta bigarren korrikalaria aurreratu duzu. Zein postutan heldu zara helmugara?</p> <p>ERANTZUNA: Bigarren postuan</p>	<p>K</p> <p>Korrika bakoitzak badu bere kanta. Badakizu nork egin zuen Korrika 18ko kanta?</p> <p>a. Betagarrik. b. Esne Beltzak. c. Gosek.</p>
<p>K</p> <p>Begiratu arretaz logotipoari eta esan zein Korrikatakoa den.</p>  <p>(Erantzuna, irakasleak)</p>	<p>K</p> <p>Begiratu arretaz logotipoari eta esan zein Korrikatakoa den.</p>  <p>(Erantzuna, irakasleak)</p>	<p>K</p> <p>Begiratu arretaz logotipoari eta esan zein Korrikatakoa den.</p>  <p>(Erantzuna, irakasleak)</p>

<p>K</p> <p>Badakizu nola jarraitzen zuen Korrika 11ren leloak?</p> <p><i>Bat eta bat hamaika...</i></p> <p>a. ... bi eta bi hogeita bi. b. ... hemen dator Korrika. c. ... zu eta ni euskaraz.</p>	<p>K</p> <p>Gogoratzen duzu azken Korrikaren leloa?</p> <p>a. Euskalakari. b. Hemen ere euskararen alde. c. Eman euskara elkarri.</p>	<p>K</p> <p>Zenbat Korrika egin dira orain arte?</p> <p>a. 18 c. 19 d. 15</p>	<p>G</p> <p>Martxoaren 20an, Korrika Iruñera iritsiko da eta bertako plaza ezagunena zeharkatuko du. Nola deitzen da plaza hori?</p> <p>a. Foruen plaza. b. Gaztelu plaza. c. Estafeta plaza.</p>	<p>G</p> <p>Korrika ondoko herrietatik igaroko¹ da. Zein da iparraldekoena?</p> <p>a. Bermeo. b. Donostia. c. Donibane Garazi.</p> <p>1. Igaro: pasar</p>	<p>G</p> <p>Korrika Zuberoako hiriburutik igaroko da. Zein da hiriburu horren izena?</p> <p>a. Donibane Lohizune. b. Maule. c. Donibane Garazi.</p>
<p>K</p> <p>Badakizu zein maiztasunez¹ antolatzen den Korrika?</p> <p>a. Urtero. b. Bi urterik behin. c. Bisurteetan² baino ez.</p> <p>1. Maiztasun: frecuencia 2. Bisurte: año bisiesto</p>	<p>K</p> <p>Non ez da inoiz hasi Korrika?</p> <p>a. Azpeitian. b. Orreagan. c. Trebiñun.</p>	<p>K</p> <p>Euskal abeslari eta musikatalde askok hartu dute parte Korrika-kantetan; baina ez guztiak. Badakizu, ondokoan artean, nork ez duen Korrika-kantarik egin?</p> <p>a. Betagarrik. b. Mikel Laboak. c. Ken Zazpik.</p>	<p>G</p> <p>Korrika Altsasura ekialdetik¹ badator, zein herritatik etorriko da?</p> <p>a. Etxarri Aranaztik. b. Agurainetik. c. Beasaindik.</p> <p>1. Ekialde: este</p>	<p>G</p> <p>Korrikaren ibilbidean zehar, euskalki asko entzun ahal izango ditugu: zuberera, bizkaiera, gipuzkera... Baina badakizu nork egin zuen euskalkien lehenengo mapa?</p> <p>a. Etxeparek. b. Louis Lucien Bonapartek. c. Sabino Aranak.</p> <p>1. Igaro: pasar</p>	<p>G</p> <p>Korrika ondoko herrietatik igaroko¹ da. Zein da ekialdekoena?</p> <p>a. Tafalla. b. Iruñea. c. Otsagabia.</p> <p>1. Igaro: pasar</p>
<p>K</p> <p>Badakizu non ez den inoiz bukatu Korrika?</p> <p>a. Gasteizen. b. Donibane Garazin. c. Baionan.</p>	<p>K</p> <p>Korrika 18ko kanta entzun berri duzu. Badakizu nola duen izena?</p> <p>a. Tipi-tapa, tipi-tapa. b. Bagoaz. c. Gora euskalakariak!</p>	<p>K</p> <p>Badakizu nondik nora joan zen azken Korrika?</p> <p>a. Andoaindik Baionara. b. Urepeletik Bilbora. c. Oñatitik Bilbora.</p>	<p>G</p> <p>Korrikak zeharkatuko dituen mendate¹ hauen artean, zein da altuena?</p> <p>a. Herrera. b. Barazar. c. Erremendia.</p> <p>Herrera (1.104 m.), Barazar (606 m.), Erremendia (1.040 m.) 1. Mendate: puerto</p>	<p>G</p> <p>Korrika ondoko herrietatik igaroko¹ da. Zein da mendebaldekoena?</p> <p>a. Urduña. b. Santurtzi. c. Gasteiz.</p> <p>1. Igaro: pasar</p>	<p>G</p> <p>Korrika ondoko herrietatik igaroko¹ da. Zein da hegoaldekoena?</p> <p>a. Oion. b. Cascante. c. Tuteria.</p> <p>1. Igaro: pasar</p>
<p>K</p> <p>Badakizu nondik nora joango den aurtengo Korrika?</p> <p>a. Andoaindik Baionara. b. Urepeletik Bilbora. c. Oñatitik Bilbora.</p>	<p>K</p> <p>Badakizu zenbatgarren Korrika den aurtengoa?</p> <p>a. Hogeigarrena. b. Hamaikagarrena. c. Hemeretzigarrena.</p>	<p>K</p> <p>Badakizu nola amaitzen zen Korrika 18ren leloa?</p> <p><i>Eman euskara...</i></p> <p>ERANTZUNA: ...<i>elkarri</i>.</p>	<p>G</p> <p>Zein herraldetan hasiko da Korrika 19?</p> <p>a. Nafarroan. b. Zuberoan. c. Nafarroa Beherean.</p>	<p>G</p> <p>Mapa ikusita, hauetako zein herritatik igaroko¹ da lehenago Korrika 19?</p> <p>a. Lizarratik. b. Altsasutik. c. Bermeotik.</p> <p>1. Igaro: pasar</p>	<p>G</p> <p>Mapa ikusita, ondoko zein herritatik ez da igaroko¹ Korrika 19?</p> <p>a. Izabatik. b. Tuteratik. c. Bergaratik.</p> <p>1. Igaro: pasar</p>

<p style="text-align: center;">G</p> <p>Barazar mendatetik Bizkaian sartzean, zein mendi ikusiko dute korrikariek?</p> <p>a. Anboto. b. Oiz. c. Gorbeia.</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Korrikalariek ibai asko zeharkatu behar izango dituzte Korrika 19n; baina ez hauetako bat. Badakizu zein?</p> <p>a. Ezka. b. Ebro. c. Ibaizabal.</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Badakizu zein izango den Korrikak zeharkatuko¹ duen herririk altuena?</p> <p>a. Otsagabia. b. Abaurregaina. c. Otxandio.</p> <p><i>Otsagabia (764 m.), Abaurregaina (1.039 m.), Otxandio (554 m.).</i></p> <p>1. Zeharkatu: atravesar</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Hendaiara joan zara korrika egitera. Halako batean, zera entzun duzu: "<i>Biziki akituta nago!</i>" Zer esan nahi du?</p> <p>a. Hendaiara bizi dela. b. Korrika azkar egiten duela. c. Oso nekatuta dagoela.</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Oso alferra zara eta ez duzu Korrikara joan nahi. Zer egingo duzu?</p> <p>a. Atzikia jarri. b. Aitzakia jarri. c. Altzaria jarri.</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Korrika egin ondoren, egarri zara eta ura nahi duzu. Zer esango duzu?</p> <p>a. Emadazu ura, mesedez! b. Emaidazu ura, mesedez! c. Eman didazu ura, mesedez!</p>
<p style="text-align: center;">G</p> <p>Pertsonaia ezagun hauetako bat Urepelekoa da, Korrika 19 hasiko den herrikoa. Badakizu zein?</p> <p>a. Itxaro Borda idazlea. b. Maider Unda kirolaria. c. Xalbador bertsolaria.</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Zein ibairen gainetik igaroko¹ dira korrikariek Lizarran?</p> <p>a. Egaren gainetik. b. Aturriren gainetik. c. Eboren gainetik.</p> <p>1. Igaro: pasatu</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Mapa ikusita, hauetako zein izango da Korrika 19k zeharkatuko¹ duen azken herria?</p> <p>a. Agurain. b. Guardia. c. Arrasate.</p> <p>1. Zeharkatu: atravesar</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Teresez kilometro asko egin ditu Korrikan eta ezin du jarraitu. Zer esan du?</p> <p>a. Uf! Jota nago! b. Uf! Blai nago! c. Uf! Oker nago!</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Korrika iristean oso urduri jartzen bazara, zer esango duzu?</p> <p>a. Zer urduri nago! b. Zer urduri nagoen! c. Zer urduri nagoela!</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Nondik sartuko da Korrika Bizkaian?</p> <p>a. Barazarraren mendatetik. b. Barazar mendatetik. c. Barazarreko mendatetik.</p>
<p style="text-align: center;">G</p> <p>Pertsonaia ezagun hauetako bat Bilboko da, Korrika 19 amaituko den herrikoa. Badakizu zein?</p> <p>a. Gabriel Aresti poeta. b. Maialen Lujanbio bertsolaria. c. Jose Angel Iribar futbolaria.</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Badakizu zein ibai zeharkatuko¹ duten korrikariek Amurriotik igarotzean?</p> <p>a. Ibaizabal. b. Cadagua. c. Nerbioi.</p> <p>1. Zeharkatu: atravesar</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Bakiotik igarotzean, zein edari tipiko hartuko dute korrikariek egarria asetzeko¹?</p> <p>a. Sagardoa. b. Ardoa. c. Txakolina.</p> <p>1. Ase: saciar</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Zein egunetan igaroko da Korrika Urduñatik?</p> <p>a. Martxoak 25ean. b. Martxoaren 25an. c. Martxoaren 25ean.</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Korrika Legazpitik pasatzean zein ordu den galdetzen badigute, zer erantzun beharko dugu?</p> <p>a. Bostak eta laurdenak. b. Bost eta laurden. c. Bostak eta laurden.</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Euria aitzakia ona izan daiteke Korrikara ez joateko. Baina nola esan beharko duzu?</p> <p>a. Ezin naiz joan. Euria ari da. b. Ezin naiz joan. Euria ari du. c. Ezin naiz joan. Euriak ari du.</p>
<p style="text-align: center;">G</p> <p>Korrikak igaroko dituen herri hauetako batean ez dira Sanferminak ospatzen. Badakizu non?</p> <p>a. Iruñean. b. Lizarran. c. Lesakan.</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Korrikak bisitatuko dituen hiru herri hauen artean, zein da jendetsuena?</p> <p>a. Irun. b. Baiona. c. Barakaldo.</p>	<p style="text-align: center;">G</p> <p>Korrikak herrialdeetako hiriburu guztiak bisitatuko ditu. Baina badakizu zein den Euskal Herriko hiriburu historikoa?</p> <p>a. Iruñea. b. Gasteiz. c. Baiona.</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Korrika zure herritik pasatzeko bi egun falta badira, zer esango duzu?</p> <p>a. Herenegun etorriko da. b. Etzi etorriko da. c. Herensuge etorriko da.</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Korrikaren azken egunean lan egin beharko duzu eta ezin izango zara Bilbora joan. Nola esango diozu hori bizkaitar bati?</p> <p>a. Beharrean egongo naiz. b. Lantzean egongo naiz. c. Trabakuan egongo naiz.</p>	<p style="text-align: center;">E</p> <p>Baionara joan zara Korrikara. Halako batean, "<i>Zoaz gibelerat!</i>" esan dizu batek. Zer egingo duzu?</p> <p>a. Medikua erangana joan, b. gibela¹ txarto daukat eta. c. Aurrera joan.</p> <p>1. Gibel: riñón</p>

<p>E</p> <p>Zer falta da esaldi honetan? "Korrika 18n ezin izan nuen parte hartu, buruko mina _____ eta".</p> <p>ERANTZUNA: ... buruko mina <u>nuen/neukan</u> eta".</p>	<p>E</p> <p>Nola amaitu behar duzu esaldi hau? "Aurreko Korrikan ondo entrenatu nintzen eta kilometro guztiak egin ...".</p> <p>ERANTZUNA: ...<u>nituen</u>".</p>	<p>E</p> <p>Ondoko esaldian akats bat dago. Zuzendu ezazu: "Korrika 18n, jende asko hartu zuen parte".</p> <p>ERANTZUNA: "Korrika 18n, jende <u>askok</u> hartu zuen parte".</p>	<p>Z</p> <p>Korrika azkarregi egingo duzue isuna jarri dizute: dadoarekin 6 atera arte ezin izango duzu fitxa mugitu.</p> 	<p>Z</p> <p>HIEROGLIFOA: Zein herri zeharkatuko du Korrikak Iparraldean sartu aurretik?</p> 	<p>Z</p> <p>HIEROGLIFOA: Herri hau Korrika baten abiapuntua¹ izan zen.</p>  <p>1. Abiapuntu: inicio</p>
<p>E</p> <p>Korrika oso azkar doa eta ezin duzu erritmoa jarraitu. Zer eskatuko diezu beste korrikalariel?</p> <p>a. ... motelago joatea. b. ... motelago joan direla. c. ... <u>motelago joateko.</u></p>	<p>E</p> <p>Korrikalari bat, metro batzuk korrika egin ondoren, marmarka hasi bada, zertan hasi da?</p> <p>a. Errepideko marrak zenbatzen. b. <u>Kexaka.</u> c. Esprintean.</p>	<p>E</p> <p>Donapaleura joan zara Korrikara. Halako batean, "Kasu! Kasu!" esan dizu batek. Zer egingo duzu?</p> <p>a. Egunkaria erosiko dit. b. Agurtu egingo dut. c. <u>Kontuz ibiliko naiz.</u></p>	<p>Z</p> <p>HIEROGLIFOA: Nola egingo duzu Korrika? "..... <u>batek bezala</u>".</p> 	<p>Z</p> <p>HIEROGLIFOA: Zenbat kilometro egingo duzu Korrikan?</p> 	<p>Z</p> <p>Korrika-kanta aingeru txoket bezala abestu duzunez, bota dadoa birritan txartelik hartu gabe.</p> 
<p>E</p> <p>Zer esan nahi du esaldi honek? Korrikalariak oso kuxkuxeroak omen dira.</p> <p>a. Kuskusa jatea gustatzen zaiela. b. <u>Bazter guztietan sartzen dutela muturra.</u> c. Oso dotore janzen direla.</p>	<p>E</p> <p>Maulera joan zara Korrikara. Halako batean, "Zoazte aitzinera" entzun duzu. Zer egingo duzu?</p> <p>a. Denbora-makinan sartu eta iraganera joan. b. Atzera joan. c. <u>Aurrera joan.</u></p>	<p>E</p> <p>Zein ordutan pasatuko da Korrika Getxotik?</p> <p>a. <u>Eguerdikoko ordu bietan.</u> b. Eguerdikoko bi ordutan. c. Eguerdikoko bietan.</p>	<p>Z</p> <p>Antidopin kontrola egin dizute eta argi gorria piztu da. Hiru aldiz geratu beharko duzu jokatu gabe.</p> 	<p>Z</p> <p>Aste osoan ez duzunez piperrik egin¹, eraman zure fitxa bost lauki aurrerago.</p>  <p>1. Piper egin: hacer pira</p>	<p>Z</p> <p>Korrikan, erdaraz hitz egiten harrapatu zaitugu. Zure fitxa hamar lauki atzera eraman behar duzu, txanda galduta.</p> 
<p>E</p> <p>Zein egunetan pasatuko da Korrika Baionatik?</p> <p>a. Martxoako hogeita batean. b. Martxoako hogeita eta batean. c. <u>Martxoaren hogeita batean.</u></p>	<p>E</p> <p>Noiz izango da Korrika?</p> <p>a. Martxoaren 19etatik 29etara. b. <u>Martxoaren 19tik 29ra.</u> c. Martxoaren 19tik 29ra.</p>	<p>E</p> <p>Korrikan 40 kilometro jarraian egin ondoren, zer esan behar duzu?</p> <p>a. Nekatua gaude. b. Nekatutak gaude. c. <u>Nekatuta gaude.</u></p>	<p>Z</p> <p>Kilometro oso bat egin duzu korrika, gelditu gabe eta negarrik egin gabe. Balentria ospatzeko, bota ezazu dadoa berriro, txapeldun!</p> 	<p>Z</p> <p>Korrika-kanta ez dakizu buruz. Kanta osoa ikasi arte, hiru aldiz jokatu gabe geratuko zara, txanda galduta.</p> 	<p>Z</p> <p>Korrika arropaz jantzita agertu zara oinetatik burura. Horren dotore etortzeagatik, eraman zure fitxa bost lauki aurrerago eta bota dadoa berriro.</p> 

EUSKARA LOREA

SARRERA

Jarduera honen helburua, ikasleak euskararekiko duten harremana lantzea da.

Aldi berean, euskarari zer identifikatzen duten jakitea, eta kontziente uztea horiek anitz egin dezaketela. Egiten AHAL dutela: horretan da ardaztuko jardueraren mezu positiboa.

Ikasleen arteko eztabaidak sortzea ere bada xedea: nahiz-eta gai berdinez jardun, gai emozionala gainera, ikuspegi anitzak izan daitezkeela ohar daitezzen. Horien barneko hausnarketa ere da bilatzen hemen, baita elkarren arteko jarrerak, desadostasunaren zein desberdintasunaren aurrean.

PROZEDURA

Irakasleak zirkulu-erdian jarriko ditu ikasleak, orrialde handi bati begira.

Orrialdean, irakasleak lore handi bat marraztuko du, petalorik gabe. Lorearen bihotzean, "EUSKARA" hitza idatziko du.

Ikasleei galdeginen die loreak zer duen eskas. "Petalok!" erantzuna etorriko bide da, goiz ala berandu.

Ikasleek dituzte petaloak osatuko. Kopuruaren arabera, binaka ala hirunaka jarriko dira (auzokoekin): talde bakoitzak petalo bat sortuko du. Horretarako, taldeka aipatu beharko dute euskara zeri lotzen duten: beraien artean eztabaidatu ostean, talde bakoitzean hitz bakarra adostu beharko dute (baikorra ala ezkorra izan daiteke, kontzeptu bat, toki bat, pertsona bat, emozio bat, objektu bat...).

Hitz bakar hori, irakasleak prestatutako kartulina batean idatziko dute, koloretsu, eta kartulina petalo forman ebakiz.

Talde bakoitzak orrialde handira joan beharko du, txandaka, lorearen bihotzaren inguruan bere petaloa itsastera. Hitz hori zergatik hautatu duten eskatua izango zaie (zergatik hitz hori hautatu

duten, zer erran nahi duen haientzat...), eta lehen elkarrizketa bat bultzatu daiteke ikasleen artean.

Hitz berdina ateratzen behin baino gehiago errepikatzen dela ikusiko balitz, taldeei beren hitza ez aldatzea eskatuko zaie.

Bakoitzak bere hitza ipinia izango duelarik, irakasleak galdera hau botako du: "Gure lilia, nori esker loratu ahal izan da?". "Guri esker!" erantzuna helduko denean, irakasleak eguzki eder bat marraztuko du lorearen ondoan, "GU" idatziz erdian.

Hortik, irakasleak mezu positiboak bota ditzake: "Hizkuntza gabe ez gara, baina hizkuntza ere ez da gu gabe"; "Gutariko bakoitzak hizkuntza asko eduki ditzake, baina euskarak gu baizik ez gaitu"; "Ni hizkuntzarentzat garrantzitsua naiz, hizkuntza niretzat garrantzitsua bada".

Mezu horien ildotik, azken elkarrizketa bat bultzatuko du irakasleak, talde handian, saioa borobiltzeko.

Talde handian atera den lorea artoski gordeko du irakasleak, 7. jarduerari begira.

BALIABIDEAK

- Formatu handiko orrialde bat
- Kartulina zuriak
- Kolore guztietako margoak, guraizeak, zeloa

LEKUKOA

SARRERA

Jarduera hau edizio bakoitzean errepikatzen den horietakoa da. Klasiko bihurtu arren, komeni da norberak berrikuntza bilatzeko saiakera egitea.

Hemen, proposatzen da 6. jarduerarekin lotura egitea, eta gela bakoitzak sortu duen lorea erabiltzea eskulan tailer erraldoia egiteko: batzuk lekukoa sortzen, besteak petoekin arituko diren bitartean.

KORRIKA TXIKIA girotzeko ere erabiliko da fase hau.

PROZEDURA

Irakasleak 6. jarduerako lorea berriz aterako du, azpimarratuz baliatuko dutela osteko bi jarduerak gauzatzeko: batzuk lekuko erraldoia sortzen, besteak petoekin.

- Irakasleak elkarrizketa labur bat abiatuko du, ikasleek gogora dezaten lorearen jardueran zer esan zen. Gogoak berriz olioztatu ostean, petoak landuko dituztenek lelo bat asmatu beharko dute (petoetan emateko), eta lekukoarekin arituko direnek, berriz, bertso bat sortu beharko dute (lekukoaren barnean joango dena).
- Gela bakoitzak lekuko bana edukiko du. Lekukoaren inguruan arituko diren ikasleak bi azpitaldetan zatituko dira: lekukoa ekoiztuko dutenak, eta bertsoa sortuko dutenak.
- Lekuko erraldoia sortzeko materiala utziko zaio lehen taldeari. Kartelak edo banderolak babesten dituzten kartoi borobil eta arin haietakoa izango da euskarri egokiena.
- KORRIKAREN irudiez balia daiteke, tutuak apaintzeko. Hori gabe ere egin daitezke apaintetarako.
- Azkenik, pinotxo-papera baliatuz koloretako zintak egin eta goiko muturrean itsatsi.

- Bitartean, beste taldea bertsoa sortzen arituko da: era kolektiboan, arbela erabiliz, nahi duen neurri eta doinuuan, baina hitzek lotura beharko dute aurretik landutako gaiarekin, baita KORRIKA eta EUSKAHALDUN leloarekin. Irakaslea jar daiteke arbelean gidari, baita ikasle pare bat ere.

- Bertsoa adostu ostean, lekukoa ekoizten ari direnei kantatuko diete bertsoa. Guztien onespena jaso ostean, bertsoa A3 formatuko orrialde batean txukun-txukun idatziko dute batzuek.

- Bi taldeek berena bukatu, bertsoaren papera lekukoaren barruan sartuko da. Gelaren izena jarriko da lekukoaren gainean.

- Lekuko erraldoiak eskuz-esku pasako dira KORRIKA TXIKIAN, eta bukaerako ekitaldian, lekuko bakoitza zabaldu, eta barruko bertsoa kantatuko da megafonian. Hori egin ostean, LH3koen horma-irudian itsasiko da bertso-papera.

BALIABIDEAK

Jarduera egiteko elementu hauek baliatuko ditugu:

Kartelak/banderolak babesteko erabiltzen diren kartoi borobil bat

- Kartoi mehea
- Lekeda
- Margoak
- Koloretako zintak (pinotxo-papera, lazoak, hariak...)
- Aurreko jardueran sortu lorea
- Tailerra girotzeko musika (KORRIKAKo kanta ezberdinak)



PETOA

SARRERA

Jarduera hau edizio bakoitzean errepikatzen den horietakoa da. Papera da jarduera hau burutzeko baliabide nagusia. Plastikoa, ahal dela, baztertu egingo dugu, ingurunea kutsatzen duela kontuan harturik; hala ere, aurreko edizioetarako erabilitakoak birziklatzea proposatuko dizuegu.

Aukera bikaina da ingurugiro eta birziklapenari buruz hitz egiteko eta A21eko konpromisoak gogora ekartzeko.

Hemen, proposatzen da 6. jarduerarekin lotura egitea, eta gela bakoitzak sortu duen lorea erabiltzea eskulan tailer erraldoia egiteko: batzuk lekukoa sortzen, besteak petoekin arituko diren bitartean.

KORRIKA TXIKIA girotzeko ere erabiliko da fase hau.

PROZEDURA

Irakasleak 6. jarduerako lorea berriz aterako du, azpimarratuz baliatuko dutela osteko bi jarduerak gauzatzeko: batzuk lekuko erraldoia sortzen, besteak petoekin.

- Irakasleak elkarrizketa labur bat abiatuko du, ikasleek gogora dezaten lorearen jardueran zer esan zen. Gogoak berriz olioztatu ostean, petoak landuko dituztenek lelo bat asmatu beharko dute (petoetan emateko), eta lekukoarekin arituko direnek, berriz, bertso bat sortu beharko dute (lekukoaren barnean joango dena).

- Petoaren inguruan jardungo duten ikasleak bi azpi-taldeetan banatuko ditugu: petoa bera landuko dutenak (gehiengo osatuko dutenak), eta leloa asmatuko dutenak (bakar batzuk).

- Petoa landuko dutenei, KORRIKA 19ko irudia banatuko zaie, koloreztatzeko. Petoa KORRIKAren kolorez margotu eta ertzetatik moztuko dugu. Atzeko eta aurreko aldeak kamisetari lotuko dizkiogu kate-orratzen laguntzaz edota soka edo lazoak erabiliz eta ertzak lotuz.

- Ez da ahanzi beharko lekukoa eta leloa lantzen dutenen petoa ere prestatzea (horregatik gehiengoak osatuko du azpi-talde hau)

- Aurreko aldean EUSKAHALDUN leloa egongo da; atzeko aldean, beste taldeak landuko duen leloa joango da.

- Lelo lantzen duen taldeak, 6. jarduerako loretik abiatu beharko du lelo bat aurkitzeko. Irakasleak gogoraraziko die leloak labur izan behar duela, hitzekin jolastea dela helburua. Errimekin ere jolas daitekeela ere azpimarratuko zaie.

- Proposamen bat baino gehiago edukiz geroz, gela osoari bozkaraziko zaio, eta boz gehien eskuratuko duen leloa eramango dute petoetan (ordenagailuan idatz daiteke, eta inprimatu). Lelo lantzen dutenak besteengana joango dira, petoen ekoizpena bukatzen laguntzeko.

BALIABIDEAK

Jarduera egiteko elementu hauek burutzeko baliatuko ditugu:

- Aurreko urteetako petoak (izatekotan).
- Petoaren fotokopia Din A-4 tamainara handituta (ikus hurrengo orrialdea)
- Margoak
- Artaziak
- Kate-orratzak
- Soka, lazoa edo antzekoa.



PETOA
8-10 URTE

19.korrika
EUSK AHAL DUN!

Urepeletik Bilbora
2015eko martxoaren 19tik 29ra

euskaitel
gozatu.euskaitel.com

eitb



PETOA
8-10 URTE



KORRIKA TXIKIA

SARRERA

KORRIKA TXIKIA kasuan kasuko herritik KORRIKA 19 pasatzen den egunean burutzea litzateke egokiena. Denan, KORRIKA 19 pasa aurretik ere burutu daiteke KORRIKA TXIKIA. KORRIKA 19 herritik pasatuko ez balitz, lurraldea hartuko da erreferentziatzat.

Jarduera hau, lagunartean eta giro alaietan egitekoa da, hortaz, ezinbestekoa da ikasleen arteko kideztzea bultzatzea. Horregatik, Unitate Didaktikoan zehar auzolanean egindakoa erabiliko da hemen: horma-irudia, denen artean apaindurik, LH3koek banderola gisa eramango dute.

Herri eta zonalde bakoitzean euskaltegiek eman ohi dituzten jarraibideen arabera antolatuko da KORRIKA TXIKIA.

PROZEDURA

LH3koek denen artean apaindu horma-irudia eramango dute, banderola gisa, eta txandaka. LH2koek ekoiztu lekuko handiak zikloka eta mailaka pasako dira, eskuz-esku.

KORRIKA TXIKIA iristean, ikasle zaharrenek ohorezko hesia osatuko dute, eta ikasle gazteenak ttipi-ttapa pasatzean, txalotuko dituzte.

Bukaeran, LH2koek lekukoan sartu dituzten bertsoak azaldu, eta megafoniarik abestuko dituzte, txandaka.

BALIABIDEAK

- Petoa soinean.
- Megafoniarik KORRIKA 19ko kanta; aurreko urteetako KORRIKA kantak.



Oharra: KORRIKA 19 eskola-ordutegitik kanpo pasatuko balitz, animatu ikastetxeko familia eta ikasleak KORRIKA ofizialean parte hartzera.



æk
19.korrika
EUSK
AHAL
DUN!